



BARREN

TOKIKOM

# Mozorroen festa



barena 11, EIBAR

**garajesGarcía.com**

**Marka guztietako  
gurpiletan  
deskontuak!**



[www.garajesgarcia.com](http://www.garajesgarcia.com)

[g.garcia@garajesgarcia.com](mailto:g.garcia@garajesgarcia.com)

Abokatuak: 943 820 697

Lanlekuak: 943 202 214

943 127 271

19.750 €



**HONDA CRV ELEGANCE**

Motorea: 1.6 cm3 I-DTEC Diesel  
Km: 40.000  
Egoera: erabilia

22.600 €



**HONDA CRV ELEGANCE**

Motorea: 2.2cm3 I-CTDI Diesel  
Km: 100.000  
Egoera: erabilia

14.000 €



**TOYOTA AVENSIS 2.0 D40 ADVANCE**

Motorea: 2.0cm3 D40  
Km: 100.000  
Egoera: erabilia

13.800 €



**OPEL INSIGNIA ST**

Motorea: 2.0cm3 CDTI Diesel  
Km: 120.000  
Egoera: erabilia

3.000 €



**RENAULT LAGUNA GRAND TOUR**

Motorea: 1.8cm3 16V Gasolina  
Km: 90.000  
Egoera: erabilia

5.500 €



**CITROEN BERLINGO FURGON 1.9 D**

Motorea: 1.9cm3 D diesel  
Km: 98.000  
Egoera: erabilia

Prezio guzti hauek finantziazterik dirazok.

**50**



urteurrena



**50 urte zuekin bidaiatzen**

Sagardotegi denboraldia **DARIO BUS**ekin!  
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe.

Pol. Ind. Igartualdea, 27  
20850 Mendara - Tel. 943 741 677  
[www.dariobus.com](http://www.dariobus.com) - [clientes@dariobus.com](mailto:clientes@dariobus.com)



**FANUC**

**ATE IREKIAK FANUC ELGOIBAR**

Martxoak 9 eta 10 (CNC, ROBOTIKA, MAKINAK)

Informazioa / izenematea: [elgoibar.fanuc.es](http://elgoibar.fanuc.es)



OLASO INDUSTRIALDEA 3 - ELGOIBAR TF: 902 13 35 35 WWW.FANUC.ES



GARAZI AYESTA



### *“Askotan barregarri joateko aprobe txatu izan ditut inauteriak; barregarri eta zatar”*

**B**adatoz karnabalak, Nora. Iritsi dira koloreak eta jantzia; eta joan dira lotsak. Apurtu dira, tarte batez, gizarite zurrun honetako legeak. Eta kalea transformistaz, artistaz, eta egoera surrealistaz beteko zaigu. Ni ne oso karnabal zalea izan naiz beti: hilabete luzez lagunekin jantzia pentsatu, dena prestatu... eta bat-batean, beste pertsonaia batean bihurtzen zara. Gainera, askotan “barregarri” joateko aprobe txatu izan dut eguna; barregarri eta zatar. Sekula ez zait falta izan bibote, bizar, tripa edo ipurdirik. Eta, badakizu zer? Inor baino moderno, apurtzaile eta feministagoa sentitu izan naiz moztu horiekin... Nire itxurak axolako ez balit bezala, “inauteriak dira-eta!”. Gainera, -eta hau aho txikiarekin esan behar dizut, ez bainaiz harro sentitzen- aratosteetan gona moztzekin edo polit-polit margotuta ateratzen ziren neskatilak kriti-

katutakoa ere banaiz! “Ke sosas!”, pentsatzen nuen. Eta nire ezjakintasunean ausart sentitzen nintzen neska izanda, inguru-koek esango luketenari jaramonik egin ez eta kalera bibotearekin aterata...

Paradoxikoa. Inauteri gauaren aurreko poteoan, hurrengoan, eta urte guztiko beste ekintza sozial eta kaletiarretan, ez naiz sekula ezpainak ondo margotu gabe irten. Gimnasioak depilatu gabe harrapatzen banau, lotsatu egiten naiz, isilpean, eta argazkiak hamaika aldiz begiratzen ditut sare sozialetara igo aurretik, bibotea -nirea, ez inauterietakoa- kentzen dut, ikusiko den beldurrez eta Instagramen guapa agertzea gustatzen zait... Baina, Nora, ni oso modernoa naiz eh... eta inor baino iraultzaileagoa naizenez, aurten ere tripa soinean hartuta jaitziko naiz kalera... “inauteriak dira-eta!”.



NORA HADI



### *“Iritsi da gure nortasuna eta izaera gorde eta beste norbaiten azalean sentitzeko aukera”*

**I**ritsi da bai, ausart, zirikatzaile eta lotsagabe izatea txalotzen den eguna! Iritsi da gure nortasuna eta izaera gorde eta beste norbait edo zerbaiten azalean sentitzeko aukera. Zentzu honetan bi egun ditut kalendarioan salbuespen moduan markatuta, Garazi; salbuespen, zintzotasuna eta seriotasuna alde batera uzteko! Txiki Eguna (egun handia) eta inauteriak!

Nik ere gogoz hartzen dut egun honek atxikirik dakarrena: moztu aukeratzeko burukomina, erosketak, eskulanak, nerbioak, poteoa... eta nola ez, eszenatokiko adrenalina!

Karnabalen harira, lankide batek esan zidan erizainen moztu sexya debekatuko dutela hemendik aurrera. A ze poza, aizul! Izan ere, gure errealitatek dexente urruti daude minigona, takoi eta eskotedun jantzi horiek.

Egia da batek baino gehiagok esango duela guk gorago aipatu ditugun lotsagabekeria eta umore ikutua emateko direla lanbideekin erlazionaturiko moztuak ere, baina nik bularra bistan doan kotxe-mekaniko gutxi ikusi ditut orain arte inauteri egunean!

Erizain nahiz mekaniko, emakumearen irudia nahiko protagonista izaten da karnabaletan. Gizonek gorpuztutako zenbat moztu! Amarenak ziren trapu zahar batzuk, amaren ezpainetako iluna, poltsa eta ileorde deseroso bat soinean dituztelarik ibili ohi dira. Gizonak, bere gizontasunetik urrun eta harro!

Dena den, eta hau ere aho txikiarekin esaten dizut, neskoie ere gustatzen zaigula mutilez moztu, urtean behin bada ere dugun biboteari garrantzia kendu, takoz ahaztu, eta erropa zabalak eta txikitero tripa soinean jantzea. Gure feminitaterik urrun, eta oso harro! (egia izango da, Garazi, zozaok beleari...).

Aukeratu dut nik ere aurtengo moztu modernoa, nire egunerokotasunarekin ez loturirik, ez antzik... ez duen moztu, baina gustura, eroso... sentiaraziko nauena.

Eta hor doa beste galdera bat: Noiz ote gaude benetan moztu? Karnabaletan, edo urteak dituen gainerako egunetan?



## ANDER SORALUZE

Informatikaria

## Eskuko telefonuen baterixen bizixa luzatzeko gomendioak

Ez nakixan aste honetako artikulua zeren gaiñian idatzi eta mobilian zeozeren billa hasi naiz. Horretan nenbillela, mezu bat urten jata, telefonua baterixa gitxirekin naukala esaten. Horra, ba! Topau dot gai bat.

Askotan entzun dot garai bateko eskuko telefonuen baterixek oinguenak baiño askoz bizi luziagua zebela. Dударik ez, holaxe da, baiña ez baterixak hobiak ziralako, garai hartan telefonuak gaur egun baiño askoz gi-

txiago erabiltzen genduazelako baiño. Gehixegi, kasu askotan.

Dana dala, baterixen bizixa arazua da bat baino gehixagorentzat eta, laguntze aldera, sarian topau dittudan gomendixo batzuk bildu dittut.

1. Ekarrri egunera telefonoko aplikazioak eta sistema eragillia bera. Sarritan egunian jartze horrek baterixian erabilleran optimizazioa ekartzen dau (beste abantailla askorekin batera: segurtasuna.). Android eta iOSen azken bertsioek, esaterako, funtzio espezifikoak dittue ('Doze', 'App Standby',...) baterixia aurrezten laguntzeko. Zure telefonuak ezin badittu hórrek azken eguneratziok jasotako aplikazio bidez ere lortu leikez funtzioak.

2. Baterixa gehixen jaten dabana, gehixenetan, pantaila bera da. Horren ditzira mailla bajauta, baterixa dezente

aurreztu leike.

3. Dardariak (bibraziuak), mobilmentu mekanikua izanda, energia askotxo bihar dau, eta, beraz, biharrezkua danian bakarrik erabilli. Adibidez, teklatura darabilgunian telefonuak dar-dar eittiak ez dau laguntzen.

4. Telefonua erabilli bihar ez danian itzali ala hegaldietarako moduan ezarri. Gabaz, kirola eitten gabizen bitartian... Soluzio hau bereziki erabilgarria da kobertura txarra dagan lekuetan, telefonuak, konektatu nahixan, baterixa asko erabiltzen dau-eta (mendixan gabizenian adibidez).

5. Mendixaz gabizela, neguan bereziki, hotzak ere ez dio baterie mesederik eitten baterixian iraupenari. Holakuetan, eduki itzalitta edo, gitxinez, ahal dan leku epelenian: motxilan, norbere gorputzan kontra...

*"Garai bateko telefonuen baterixek oinguenak baiño askoz bizi luziagua zeben, bai, baiña askoz gitxiago erabiltzen genduazelako"*



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112  
Publizitatea: 943 743 704  
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus  
barren@elgoibarkoizarra.eus  
www.barren.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriki lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zofoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arriزابالaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Inigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enez Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Inaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazadegi, Maddi Mendibil, Haizea Beristain **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCOKULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ▶ MAALAKO JAI BATZORDEAREN BILERA DEIALDIA

Maalako Jai Batzordean urteetan dihardugu Elgoibarren jai eredu herrikoi eta alternatibo bat landu nahian. Abuztuko jaietako egitaraua eta Maalako txosnagunea izango dira ezagunenak azken urteotan seguraski.

Orain arteko ibilbidea berrikusi eta aurrera begira egin nahi dugunaz hausnartzea beharrezko iruditu zaigu batzordea osatzen dugun kolektibo eta norbanakooi. Jai batzorde herrikoi baten beharra sentitzen dugu Elgoibarren: herritarren parte-hartze aktiboa bultzatzeko, adin eta kuadrilla desberdinen harremanak josiz, gunee askak indartuz, jai euskaldun eta feministak izateko herrian, elikadura burujabetzan sakondu eta kontsumo ohituretan eragiteko, ertzetako kultur adierazpideak plazaratzeko.

Oinarriak baztertu gabe, baina antolakuntza eta jai eredia birplanteatu nahi dugu. Erronka horri heldu eta la-

nean jarraitzeko beharrezko irizten diogu taldea zabaldu eta aberasteari ere, lanerako eta ondo pasatzeko ilusioz dauden talde eta pertsonak bertan inplikatzeari. Lehen bilera bat antolatu dugu dei horrek herritarren artean zein erantzun duen ikusteko: inolako konpromisorik gabe, proposamen eta ikuspuntu desberdinak bildu eta norantz jo dezakegun hausnartzeko. Horretarako gonbidapena duzue hau. Ekarpenerik edo ideiarik baduzu, jai batzordean lan egiteko prest bazaude, edo besterik gabe orain arte jai batzordeak izan duen ibilbideaz informatu edo kritikaren bat egin nahi badiozu, otsailaren 27an, astelehenean, arratsaldeko 18:30ean elkartuko gara Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Uste dugu merezi duela saiatzeak. *Jaixak herrixak herrixantzako* diogu, beraz herritarrok izan gaitezten protagonista Maalako Jai Batzordean. Ateak zabal-zabalik daude.

**Maalako Jai Batzordea**

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratu dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: birraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelerez datorren eskutitzik argitaratuko.



## Jesusa Barinagarrementeria Gandiaga

2017ko otsailaren 16an hil zen, 89 urte zituela.

*Izan zarena,  
erakutsi duzun kemena,  
gure artean geldituko da  
zugandik jasotako dena.*

Sendia



Akondia Baserria

## Galdeketa egiteko, 1.802 sinadura batu ditu Elgoibarren Gure Esku Dagok

Elgoibarren, 1.802 sinadura lortu ditu Gure Esku Dago batzordeak herri galdeketa egin ahal izateko. Hasiera-hasieratik, gutxieneko sinadura kopuru batzuk ezarri zituen Gure Esku Dagok aurrera egiteko berme modura. Populazioaren arabera ezarri zituzten gutxieneko horiek, eta 1.001 eta 20.000 biztanle arteko herriei, 16 urtez gorako herritarren %10en sinadurak batzeko erronka jarri zieten tokian tokiko batzordeetara batutakoei. Elgoibarren, 9.632 lagun daude errolatuta adin tarte horretan, eta horrenbestez, 963 sinadura nahikoa zituzten aurrera egiteko, baina Elgoibarko Gure Esku Dagok 1.500 sinadura lortzeko erronka jarri zion bere buruari. Baina aurreikuspenak eta helburuak gainditu dituzte, 1.802 sinadura batuta 16 urtez gorako herritarren %18,70en babes eskuratu dutelako.

Pozik daude herritarrek erabakitzekeo eskubidearen aldeko ekimenari agertu dioten babesarekin eta aitortu dute



babes horrek indarra eman diela maiatzaren 7rako iragarri duten herri galdeketa antolatzeko lanei are indar handiagoz heltzeko. Gauza asko daude lotzeko oraindik: baimenak, azpiegiturak, boluntarioak... baina batzordekideak ilusioz daude, uste dutelako elgoibartarren laguntza izango dutela aurrerantzean ere.

### Maiatzaren 7ra begira

Maiatzaren 7an 46.500 herritarri emango die hitza Gure Esku Dagok Debabarrenean. Horretarako, gutxienez

4.400 sinadura behar zituzten. Debabarrenako ia herri guztiak batu dira herri galdeketa antolatzeko, eta erabakitzekeo eskubidearen ilusioa eta gogoak zabal-tzera doazela nabarmendu dute. Galderak adostu dituzte ia herri gehienetan, eta galdeketa herriz herri egingo dituzte. Elgoibarren, adin eta kolore askotako 30 bat laguneko taldeak hartu zuen galdera(k) erabakitzekeo ardura, eta adostu zituzten bi. Hauek dira: "Nahi al duzu gaur egungo estatu politikoak aldatzea?" eta "Nahi al duzu euskal estatu independentea?".

## Maalako Jai Batzordeak bilera irekia antolatu du hilaren 27rako

Jai batzorde herrikoi baten beharra ikusi dute Maalako Jai Batzordea osatzen duten kolektibo eta norbanakoek, eta hala, orain arte egindakoa berrikusteko eta aurrera begira zer/nola egin erabakitzekeo, bilera irekia antolatu dute otsailaren 27rako. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da bilera, 18:30ean.

Jai batzorde herrikoi baten beharra igarri dute kolektibok, herritarren parte-hartze aktiboa bultzatzeko, adin eta koadrila desberdinetako harremanak josteko, gune askeak indartzeko, jai euskaldun eta feministak sustatzeko, elikadura burujabetzan sakondu eta kontsumo ohituretan eragiteko, eta ertzetako kultur adierazpideak plazaratzeko, eta erronka horri heldu eta lanean jarraitzeko, beharrezko irizten diote "taldea zabaldu eta aberasteari". Horregatik, bilerara agertzeko dei egin diete jaiak herriak herriarentzako antolatu behar diotela uste duten guztiei, eta baita gai honen inguruan zeresan izan dezakeela uste duen edonori. Proposamenak eta ekarpenak jasotzeko gogoz daude, eta baita zabalik ere kritikak edo bestelakoak jasotzeko.

## Aingeru Guardako jai ospatuko dute Mendaron martxoaren 5ean

Martxoaren 1ean (asteazkena) da berez Aingeru Guardakoaren eguna, eta ohi legez, meza izango da Mendaron izen bereko ermitan, 11:00etan. Ospakizun ekitaldiak, baina, martxoaren 5ean, domekan, egingo dituzte. 12:00etan meza izango dute, eta meza osterako herri kirol saioa antolatu dute. Trikitilariak eta bertsolariak girotuko dute meza ostea. Aurten, hori bai, ez da azkeneko urteotan Aizpe elkartearen egin izan den bertso bazkaririk izango, Jai Batzordeak jakinarazi duenez.

## Kirolean jokoz kanpo dauden baloreak azalduko ditu 'Jokoz Kanpo' antzezlanak

C.D. Elgoibarren mendeurrenaren harira, *Jokoz Kanpo* antzezlanak taularatuko du Borobil teatroak martxoaren 24an Herriko Antzokian, Real Sociedad Fundazioarekin elkarlanean. Aste honetan bertan izan dira Anartz Zuazua obrako zuzendaria eta Andoni Iraola Real Sociedad Fundazioko zuzendaria Herriko Antzokian C.D. Elgoibarko Iñaki Konde eta Koldo Lizarralderekin, eszenatokiaren baldintza teknikoak aztertzen. **BARREN** astekariak une hori aprobetxatu zuen, Andoni Iraolarekin obra honi buruz hitz egiteko. Iraolaren esanetan, *Jokoz Kanpo* antzezlanak Real Sociedad Fundazioak transmititu nahi dituen baloreekin bat egiten du, eta bere ustez, antzezlan "bikaina" da, Realarekin lan egiten duten klubetara beraien mezua zabaltzeko: "Kirolean jokoz kanpo dauden jarrerak parodiatzen ditu obra honek. Helburu hezitzailea



Iñaki Konde, Andoni Iraola, Anartz Zuazua eta Koldo Lizarralde

dauka". Era berean, kultura eta futbola uztartuko dituzte, "elkarrengandik hain urrun dauden bi mundu". Iraolak konpromisoa eskatu dio C.D. Elgoibarri, hilaren 24an klubeko ume guztiak euren gurasoekin eta entrenatzaileekin Herriko Antzokira joan daitezzen. Emanaldia doan izango da, futboleko baloreak ahalik eta jende multzo zabalenera hedatu nahi dituztelako.

## Txankakua elkarteak banatu ditu Gabonetako zozketako sariak



Txankakua elkarteak banatu dizkie erosketa bonoak Gabonetako zozketan saritutakoei. Maddalen Leiaristik eta Nekane Zubiaurrek 500 euroko bono bana eskuratu dute, eta gainerako beste hauek 100 euroko bono bana: Susana Martinez, Rosario Okina, Begoña Etxaniz, Mariasun Aldabe, Mari Carmen Sanchez eta Jesus Mari Uncilla.

## Hil bukaerako aurtengo lehen feria, bihar, Elgoibarren

Hil bukaerako feria antolatu du Elgoibarko Udalak biharko Debemen elkartearekin elkarlanean. Aurten zortzi hil bukaerako azoka egingo dira Elgoibarren (uztailean, abuztuan eta abenduan ez da egingo) baserritarrek eta kontsumitzaileak biltzeko eta bide batez bertako produktuen kontsumoa sustatu eta hemengo ekonomia indartzeko. Azoka egunetarako, tailerrak ere antolatu dituzte haur eta gazteentzat. Bihar, gatzatuaren prozesu osoa ikasiko dute.

## 'Ura, glaziarretatik lurrazpiko uretara' hitzaldia, martxoaren 2an

Mendia eta zientzia uztartzeko zikloa antolatu du Morkaikok, eta horren barruan, bigarren hitzaldi sorta eskainiko dute datorren astean. *Ura, glaziarretatik lurrazpiko uretara* da hitzaldiaren izenburua, eta Eñaut Izagirre eta Inma Mugertza geologo elgoibartarrek eskainiko dute. Eñaut Izagirreren atalak *Kriosfera, izotzaren egoera munduan* dauka izena. Izagirrek Geografia ikasketak EHU burutu ostean, hiru urte igaro ditu Patagonian Glaziologiako masterra egiten Magallanesko Unibertsitatean (Punta Arenas, Txile). Mendia, abentura eta glaziarren ikerketa zientifikoa uztartu ditu dozena bat espediziotan, eta berriki, 2016ko martxoa eta apirila bitartean, National Geographic Society-ren babesan izan duen Incognita Patagonia proiektua eta espedizioa zuzendu ditu. Inma Mugertzak, bestalde, *Lurrazpiko ura, ezkutuko altxorra* izenburupean emango du hitzaldia. Mendizalea eta naturzalea afizioz, Geologian doktorea eta lurrazpiko uretan aditua da Inma. Hainbat enpresatan egin du lan, baina azken hamar urteotan aholkulari independente gisa ibili da. Gainera, Euskal Kostaldeko Geoparkeko batzorde zientifikoko kide ere bada, eta azken urteotan, Euskal Herriko geodibertsitatearen ezagutza suspertzeko eta balioan jartzeko ahalegin berezia egiten dihardu.

Datorren egunean, martxoaren 2an izango da hitzaldia, 19:00etatik aurrera, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.



Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112




**Pista beltzean estolda bat zulatuta dago:** "Pista beltzeko estolda bati tapa falta zaio, eta zuloa bistan ikusten da. Arriskutsu dago, eta edonork hanka bertan sartzeko moduan dago gainera. Min hartzeko arriskua handia da. Juan Mugertza berritzeko asmoa dauka Udalak, baina lan horiek egin aurretik eskertuko genuke estolda hau behintzat konpontzea, inork min hartu aurretik". Josu Arraiz Udaleko Hirigintza Zinegotziak esan du kontuan hartuko dutela eta lehenbailehen konponduko dutela.



**Mintxetako iturria hondatuta dago aspalditik:** "Mintxetako iturria hilabeteetan dago hondatuta. Parkean ume asko ibiltzen da jolasean, izarditu egiten dira eta egarria izaten dute. Iturri hori asko erabiltzen dute umeek, eta eskertuko genuke lehenbailehen konpontzea. Udaltzaingoan jakinarazi nuen hondatuta zegoela, baina oraindik ez dute konpondu". Josu Arraiz Hirigintza Zinegotziak jakinarazi du konpondu dutela.



**Kalamua kalea estuegia da autobusak eta autoak gurutzatzeko:** "Herri Eskolarako sarrera-irteera orduetan autobusak eta autoak batera ibiltzen gara Urazandi auzoan, gora eta behera. Kalamua kalea estuegia da autoak eta autobusak gurutzatzeko, eta auto gidariak derrigortuta egoten gara espaloi gainera igotzera. Kontua da espaloia oinezkoentzat dela, eta norbait harrapatuz gero, erru guztia auto gidariarena izango litzatekeela, espaloian oinezkoek dutelako lehenasuna. Behin ume bat harrapatzeko puntuan egon nintzen, eta badakit ez naizela hori gertatu zaidan bakarra. Ezbararren bat gertatu aurretik irtenbideren bat aurkitu behar dela uste dut". Josu Arraizek esan du aztertuko dutela gai hau, baina gaineratu du konponbide zaila duela arazo honek.



**Zer gertatzen da Errotaberri kaleko eskailera mekanikoekin?:** "Errotaberri kaleko eskailera luza-roan egon dira geldirik, eta denetariko zurrumuruak entzun ditugu. Batzuek diote eskailera kendu eta igogailua jartzeko asmoa duela Udalak". Josu Arraiz Hirigintza Zinegotziak zurrumuru gezuratu du, eta esan du ez dagoela igogailua jartzeko asmorik. Errotaberriko eskailera guztiak hondatu ziren, 175 eskailera, eta bakoitza konpontzeko hiru bat ordu behar dira. Horregatik luzatu da hainbeste. Udalak aurreikusten du martxorako martxan egongo direla.



# Kolorez janzteko egunak

Iritsi dira inauteriak. Kolorearen eta irudimenaren jaiak izan ohi dira; mozorrotu eta kolorez janzteko egunak. Elgoibarren eta Mendaron dena prest dago datozen egunotan inauteriak ospatzeko. Eragileek egitarau zabala prestatu dute, eta norberak bere neurrirako ekintzak aurkitzeko aukera izango du. Inauterietan umorea izaten da nagusi. Lotsa etxean utzi eta festa eta algararako uneak izango ditugu egunotan. Gaurkoan inauteriak modu berezian bizi dituzten bi lagun-talde ekarri ditugu gurera, bata Elgoibarkoa eta bestea Mendarokoa. Biharko mozorroa prestatzeko azken lanetan harrapatu ditugu.

- AINHOA ANDONEGI -

Elgoibarren eta Mendaron dena prest dago datozen egunotan inauteriak ospatzeko. Gaur hasiko dira mozorro festak Elgoibarren Ikastolakoek antolatutako euskal inauteriarekin. 15:15ean irtengo dira Ikastolatik eta kalejiran joango dira Kalegoen plazaraino (Euria egiten badu, Ikastolan geratuko dira). Mendaroko Ikastolan ere gaur egingo dute inauterietako jaialdia, eta jaialdiaren ostean, Arno Guraso Elkarteko kideek txokolatezko ogitartekoak banatuko dizkiete haur guztiei.

Bihar, bestalde, kalera irteteko eguna izango da, bai Elgoibarren eta baita Mendaron ere. Musika, txarangak, mozorro desfileak, Atxutxiamaikaren Atxutxikaraokea eta beste hainbat ekitaldi izango dira, inauterietako zapatua umore onean pasatzeko. Martitzenean, berriz, Herri Eskolakoek egingo dute jaialdia ikastetxeko patioan, eta arratsaldean



Txotxolin sagardotegia prestatu zuten iaz.



Kuadrilla hau Afrikako beltzen paperean sartu zen.



Zortzi milako mendia egin zuenik ere bazen iaz Mendaron.



Master Chef programako partaideak, Mendaron.

mozorroen elkarretaratzea egingo da Kalegoen Plazan. Mendaron, bestalde, *GoLazen* telesailaren antzezlanaren taularatuko dute Ikastolako patioan. Inauterietako egitarau osoa agendan duzue ikusgai.

Baina egitaraua egitarau, norberaren umorea da garrantzitsua inauterietan. Mozorroa prestatu eta mozorrotatuko pertsonaiaren paperean sartzeak ere laguntzen du ondo pasatzen. Gaurkoan inauterietan izugarri gozatzen duten bi kuadrilla ekarri ditugu orriotara. Aitor Sasiain, Asier Arizaga eta Jabi Guallar hirukote elgoibartarra batetik, eta bestetik, Nuria Ansuategi, Antonio Gonzalez eta Miren Gonzalez mendarorarrak. Aurtengo mozorroak oraindik guztiz prestatu gabe ditzutela harrapatu ditugu, baina biharko dena prest izango dute.

## ELGOIBAR.....

Jabi Guallar, Aitor Sasiain eta Asier Arizaga.

Asier Arizaga, Aitor Sasiain eta Jabi Guallar gazte-gaztetatik mozorrotu izan dira inauterietan. Beti kuadrillan irteten ziren lehen, Institutuan edo Unibertsitatean ikasten zutenean lagun talde handia biltzen ziren, eta normalean, denak batera mozorrotzen ziren. Urte batean Kaikuko arraunlarien paperean sartu ziren, eta trainera bera ere egitea bururatu zitzaizen. Lagun baten garajeon bildu, eta trainera eraiki zuten. Hura izan zen mozorroaz gain tramankuluren bat eraiki zuten estreinako aldia. Eta ondo aprobetxatu zuten trainera, gainera. Hurrengo urtean azterketetan harrapatu zituen kuadrillako bat baino gehiago mozorroen festak, eta lagun gutxi zeudenez, trainera haren hondarrak aprobetxatu zituzten barko hondoratu bat irudikatzeko eta naufragoz jantzi ziren hainbat lagun.

Ondorengo urteetan etorri ziren Tetris jokoaren fitxak, zaldiko maldikoetako zalditxoak edota Franciscaner garagardoak. Baina arrazoiak arrazoi, denborarekin kuadrillako lagunak gutxituz joan ziren inauterietan, eta Asier, Aitor eta Jabi geratu ziren kuadrillaren ordezkari. Hiruko taldean mozorrotzea erabaki zuten. 2012an izan zen hirurak elkarrekin mozorrotu ziren estreinako aldia. Hainbat ideia erabili zituzten eskuartean, baina azkenean Txirri, Mirri eta Txiribiton aukeratu zituzten. Paperak nahiko ondo definituta zituzten; ez zuten zalantzarik: Jabi izango zen Txirri, Aitor Txiribiton, eta Asier "soberan" zegoena. Tortolika ere eraiki zuten, eta detaile guztiakin irteten ziren kalera. Santa Klarako garajeon eraiki zuten Torto-

*"Herriko hiru pertsonen disfrazak izan zuen oihartzuna ez genuen espero"*



Edu Arrillaga, Julen Agirre eta Txomin Mujika.



Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoak.



Montxito, Macario eta Rockefeller.

lika, eta handik jaitsi ziren plazara zapatu arratsaldean. Iritsi ziren momentuan Mauxitxa txaranga Kalegoen plazan zegoen, eta plaza jendez gainezka zegoen. "Txan- k a k o a k o zubitik frontoira iritsi ginen unea sekulakoa izan

zen". Ume guztiak gerturatu zitzaizkien, denek nahi zuten Tortolikara igo!. Txiribitonen bozinak eman zuten "lata" apur bat gau hartan. Hain pasatu zuten ondo, hurrengo urtean ere hirukotean irteten zirela. Jose Luis Morenoren Montxito, Macario eta Rockefeller panpinen azalean sartu ziren urte hartan. Paperak banatzerakoan orduan ere bi oso argi zeuden: Aitor izango zen Montxito, Jabi Rockefeller, eta Asier berriz ere "soberan zegoena". Ederki pasatu zuten orduan ere. Baina ezbairik gabe, 2015eko mozorroa izan zen herrian

oihartzun handiena izan zuena. Herriko burusoil ilustreak aukeratu zituzten. Txomin Mujika bandako zuzendaria, Edu Arrillaga argazkilaria eta Julen Agirre Iriondo tabernako tabernaria. Prestaketa lanetan ari zirenean ez zuten gehiegi sinisten mozorro horretan, baina jantzi ziren unean konturatu ziren mozorroa benetan ona zela. Etxean bertan atera zuten erretratu bat, eta kalera iritsi zirenerako jende guztiak zeukan argazki hori. "Ez genuen uste horrelako oihartzuna izango zuenik". Hasieran kezka apur bat ere bazuten, ez zekitelako benetako protagonistek nola hartuko zuten, baina eurak intentzio onez irteten ziren: "Primeran hartu zuten! Eurrekin atera genituen argazkiak eta barre ere egin genuen. Txomin ez zegoen herrian egun horretan, baina ikusi zuen argazkia eta mundial geundela esan zuen". Mozorro horrekin erakutsi zuten ez dela asko behar inauterietan ondo pasatzeko. Aurten ere seguru emango dutela zeresana.

# MENDARO.....

**Nuria Ansuategi, Antonio Gonzalez eta Miren Gonzalezen kuadrilla.**

Nuria Ansuategi, Antonio Gonzalez eta Miren Gonzalez koadrilan irteten dira urtero Mendaron, eta sekula ez dira oharkabean pasatzen. Inauteriak gorritz markatuta izaten dituzte egutegian, eta Gabonak alde horretan erabakitzen dute zertaz mozorrotuko diren. Behin gaia aukeratzen dutenean, bakoitzak berea egiten du, eta Nuriak gainbegiratzeko ditu denak: "Geure artean ere sekretuak izaten ditugu, baina denek niri galdetzen didate pentsatu duten hori egoki ikusten dudan edo ez". Ez daukate lotsarik, eta edozer jantzeko prest egoten dira. "Egun horretan lotsa etxean utzi behar da", esan dute. Beraien ustez inauterietan lotsagarria goa da mozorrotu gabe irtetea kalera. Beraien argi dute: "Mozorroa eta mozorrotutakoaren papera antzeztea da garrantzitsuena". Normalean protagonista nagusi bat aukeratzen dute lagun artean, eta gainerako kideak haren bueltan mozo-



*Errusiar enbaxada, Mendaron.*

*"Mozorroa sekretuan gordetzen dugu kalera irteten garen arte"*

rotzen dira. Nuriaren senarra izan da urteetan protagonista hori: "Hari berdin zaio zer jantzi, eta bera izaten da gehienean protagonista. Baina aurten denok izango gara protagonista".

Dozena bat urte izango dira honezkero kuadrillan eta umeekin irteten direla. Denetariko mozorroak aukeratu izan dituzte: Ijito ezkontza irudikatu zuten orain dela urte batzuk, *Revista* kabareta ere egin zuten koreografia eta guzti, Errusiar enbaxada Euskal Herrian ere bai, baina beraien ustez onena orain dela bi urte aukeratu zutena izan zen: *Torrente*. Santiago Seguraren filmeko pertsonaiak aukeratu zituzten, eta detaile guztiakin irteten ziren kalera. Antonio, esate baterako, *Torrente*ren aitaren papelean sartu zen, eta gurgildun aulki eta guzti irteten zen kalera. "Sekulakoa izan zen, primeran pasatu genuen".

Inauterietako zapatuan irteten dira kalera, eguerdi aldera. "Gu hasi ginen egunez mozorrotzen Mendaron. Orain dela urte batzuk egunez jende gutxi mozorrotzen zen, baina gaur egun egunez egoten da gabez baino giro handiagoa". Plazara iristeko unea "berezia" izaten da: "Jendea zain bezala egoten da". Herriko Enparantzan sartu eta begiradak euren soinean igartzen dituzten une hori polita izaten dela aitortu dute, eta gustatzen zaie jendearen iritziak jasotzea: "Jendeak egia esaten du! Ondo goazela entzutea gustatzen zaigu, baina bestelako kritikak ere onartzen ditugu. Batzutan esaten digute aurreko urteko mozorroa hobea izan zela". Orijinala izatea zaila dela esan dute, eta Mendaron urtetik urtera mozorroen maila hobea dela iruditzen zaie. "Jendeak oso ondo lantzen ditu mozorroak, gero eta gehiago".

Aurtengo mozorroak prestatzeko azken detaileen faltan harrapatu ditugu, baina ez dute mozorroari buruzko pista txikiarik eman: "Ez, ez! Mozorroa sekretuan gordetzen dugu kalera irteten arte". Umeekin mozorrotzen dira, eta umeei ere ondo erakutsita diete sekretua gordetzen. "Nire lagun Garbiñe ere oso inauteri zalea da, baina berak ere ez dit esan zertaz mozorrotuko diren", esan du Nuriak. Beraz, bihar eguerdi aldean argituko da sekretu hori, Mendaroko Herriko Enparantzan.



*'Torrente' filma*



*Kabaret taldea.*



# Aldapan gora, pausorik pauso

**Tourreko etapa erregineko azken mendatera erregairik gabe ailegatu den txirrindulariak datorkiona ikusten duen modu berean ikusten zuten etorkizuna Elgoibarko Lagun Taldea Txirrindulari Eskolari tiraka aritu diren hiru lagunek: beltza. Tomas Salegi presidenteak, Felipe Calleja presidente ohiak eta kirol arloko arduradun Juan Ramon Bellonek daramate klubaren pisua azken urteetan, eta ikusten zuten urtetik urtera ume gutxiagok ematen zutela izena txirrindulari eskolan. Joera horri buelta emateko eta taldea dinamizatzeko beharra sumatzen zuten. Txirrindularitzak zerbait irakasten badu, sufritzen erakusten duela dio Tomas Salegik. Nola edo ahala asmatu dute klubari eusten, eta hasi dira ordekek ikusten, lehen malda pikoak zeuden lekuan.**

- ASIER ORBEA -

az hamar umek bakarrik eman zuten izena Elgoibarko Lagun taldea Txirrindulari Eskolan. Hiruk jubeniletan, lauk kadeteetan eta beste hiruk infantiletan aritzeko. Urrun samar geratzen dira 50 txirrindularitik gora aise batzen zituzten denboraldiak. Ume mordoia ageri dira klubean gordeta dituzten duela 30 urteko argazkietan. "Orduan futbola bakarrik zegoen Elgoibarren, eta futbolerako aukeratzen ez zituztenak etortzen ziren guregana. Gainera, 80ko hamarkadan, guraso askok drogengandik aldentzeko ere apuntatzen zituzten ume eta gazteak", gogoan du Tomas Salegik, azken 19 urteetan Lagun Taldeko presidentea denak. Guztiz argi ez badute ere, 1987. urtean sortu zuten txirrindulari eskola. Aurten gora egin du berriz izena eman duten haurren kopuruak, baina 17 txirrindularitik hiru bakarrik dira elgoibartarrak. Gainerakoak eibartarrak dira. "Beti egon dira Eibartik Elgoibarrerako bidea hartu duten txirrindulariak, baina ohikoa da orain hamar urtetik hona, Eibarko gaztetxoek taldea desagertu zenetik, hain justu ere", azaldu du Juan Ramon Bellonek.

## HARROBIA KOLOKAN

Tomas Salegik bi arrazoi nagusi ikusten ditu txirrindularien harrobiak bizi duen beheraldia

azaltzeko. "Batetik, gurasoei ez zaie gustatzen euren seme-alabak errepidean entrenatzen ikustea. 18-19 urteko txirrindulari asko daude Elgoibarren errepidean ibiltzen direnak, nahiz eta gehienak ez diren bizikleta eskolatik pasa. Bestetik, baina aurrekoarekin lotuta, gurasoek nahiago dute euren seme-alabentzat teilatupean egin daitekeen kirol "erosoago" bat. Jakina da gurasoen aldetik gero eta joera handiagoa dagoela haurrak gehiegi babesteko. Eskolan ditugun umeen %80 bizikletan ibili diren gurasoen semeak izateak argi erakusten du mundu hau ongi ezagutzen dutenak hurbiltzen zaizkigula, bereziki". Bellonek uste du gurasoek behar-bezalako informaziorik ez dutelako ez zaiela iristen eskolara ume



Iragana. Elgoibarko Lagun Taldea 1987an sortu zuten.



## “Gurasoei ez zaie gustatzen euren seme-alabak errepidean entrenatzen ikustea. Nahiago dituzte teiltupeko kirolak”.

gehiago, eta baita eskoletara joateari laga ziotelako ere. “Ni horrela hasi nintzen, Eskola Kirolaren barruan txirriindularitza ere bazegoenean. Ikastetxera etorri ziren klubekoak, eta halaxe hasi nintzen duela 28 urte”. Umeak etorri zain egon beharrean eurak ere ume eta gurasoengana joango direla erabaki dute aurten, lehenago egiten zuten moduan. Hala, txirriindularitza ezagutaraziko dute ikastetxetan. Bizikleta gainean egin beharreko jolasak eta ginkanak prestatuko dituzte.

### ENTRENAMENDUAK ETA SEGURTASUNA

Txirriindulari gaztetxoek segurtasuna bermatzeko hainbat neurri hartzen dituztela azaldu dute Salegik eta Bellonek. “Beti egon da kezka hori, baina gaur egun askoz gehiago zaintzen da segurtasunaren kontua. Gaztetxoekin, 9 eta 14 urte artekoekin, Mendaroko industriagune batera joaten gara autoz, eta han ibiltzen gara bueltaka, kotxea atzetik dutela eta nagusi bat eurekin bizikletan”. Errepidean ibiltzen 15 urterekin hasten dira, kadeteetan. Benjaminek astean behin entrenatzen dute, alebinek astean birritan eta infantilek astean hirutan. Igandeetan denek elkarrekin entrenatzen dute, elkar ezagutu eta talde giroa sortzeko, Bellonen berbetan. Eguraldi txarra egiten duen egunetan arrabolan (rodilloa) ibiltzen dira klubean. Aldiz, kadeteek eta jubenilek egun batean bakarrik hartzen dute atsedena, lasterketa eguneko biharamunean. “Entrenamendu plana jarraitu behar dute, eta egunen batean huts eginez gero, igarri egiten da”, dio Bellonek. Infantiletatik kadeteetara dagoen jauzia handia dela argitu du. Industrialde batean bost kilometro egitetik, 50-60 kilometroko probetan parte hartzen hasten dira. “Kadeteetan joko bat baino gehiago izaten hasten da txirriindularitza, eta umeek argi eduki behar dute zer nahi duten, besteak beste, gurasoek inbertsio bat egin behar dutelako bizikleta on bat, neguko arropak eta pultso-

metroa erosteko. Konpromisoa eskatzen du”.

Tomas Salegiren berbetan dirua ez da aitzakia txirriindularitza hasi nahi duten umeentzat. Kadeteetara arte behar duten material guztia, bizikletak eta arropak, lagatzen die klubak txirriindulariei. Kuota bat bakarrik ordaindu behar dute. Infantilena 45 eurokoa da. Kadeteetan ez dute bizikletarik lagatzen. Nahiz eta egon izan den salbuespenik, gurasoak lanik gabe zeuden kasu batean, esaterako. Kadeteek eta jubenilek datorren asteburuan hasiko dute denboraldia, eta gaztetxoek, martxoaren 11n. Azken hauen denboraldia ekainean bukatzen da, ikasturtearekin batera. Zapatuero hartzen dute parte Debarroko eta Urolako herrietan antolatzen diren probetan. Gehienak industrialdeetan dauden zirkuituetan izaten dira.

Gaur egun lau proba antolatzen ditu Lagun Taldea eskolak: infantiletako bi lasterketa, jubeniletakoa eta San Pedroko Igoera urriaren 12an. Kadeteen lasterketa ere antolatzen zuten, baina aurrekontu faltagatik bertan behera laga behar izan zuten orain dela bi urte. “Kadeteetako taldea eduki eta herrian lasterketarik ezin antolatu izanak min ematen digun arren, 2.000 euro inguru behar dira horrelako proba bat antolatzeko”. Beste herri batzuetan ere laga diote probak antolatzeari arrazoi beragatik. Diruaz gainera, boluntario asko behar dira antolakuntza lanetarako. “Gero eta gehiago kostatzen zaigu laguntzeko prest dagoen jendea inguratzea. Gurasoen inplikazioari esker, eta Feliperen eta Tomasen lagunei esker, osatzen ditugu boluntario taldeak”, dio Bellonek.

### ETORKIZUNA, ILUSIOZ

Tomas Salegi, Felipe Calleja eta Juan Ramon Bellon ibili dira klubari tiraka azken urteetan, duten denbora libre “apurra” txirriindulari eskolari eskainiz. Onartzen dute gogorra izan dela eta klubak ez aurrera eta ez atzera egiten zuten sentsazioa izan dutela sarritan, geldirik zegoela. Bellonek zuzendaritza taldea handitzeko

ideia izan zuten arte. Taldetik 800 bat lagun pasako zirela kalkulatu zuten, eta horietako batzuekin harremanetan jarri ziren. “Deiak egiten hasi ginen eta zuzendaritza taldeko kide izateko proposamena egin genien. Lanak banatuta guretzako eraman-garriagoa izango zela azaldu genien eta bakoitzak bere funtzioa izango zuela. Aldez aurretiko jarrera ona erakutsi ziguten, eta bilera asko egin ditugu urritik gaur arte. Azkenean hamabi lagun batu ditugu zuzendaritzara. Jarraitzeko asmoa dugu guk, pilatu dugun esperientziarekin laguntzeko, baina pixkanaka klubaren ardura euren eskuetan lagatzea gustatuko litzai-guke”, azaldu du 1998az geroztik klubeko presidentea den Salegik.



Oraina. 2017 denboraldian 17 txirriindulari ditu klubak.

Taldera batu diren lagun berriak ideia berriekin eta ilusio handiarekin datozela diote. "Dinamizatzea behar du klubak. Ideia berriak martxan jarri eta aintzat hartuko ditugu funtzionatzen dutenak. Kadeteen lasterketa berreskuratzea gustatuko litzaiguke eta bizikleta protagonista izango den pare bat jai antolatzea ere bai, ume eta familientzat. Zenbat eta gauza gehiago antolatu, gehiago ezagutuko gaituzte eta ume gehiago etorriko dira eskolara".

Txirrindularitzan hasten diren umeek bizitzarako hainbat irakaspen ikasiko dituztela dio Salegik. "Lasterketetako distantziak asko moztu dituzten arren, kirol gogorra izaten jarraitzen du txirrindularitzak, eta asko zailtzen ditu umeak. Sufritzen ez dakitenek sufritzen ikasten dute, eta irakasgai horrek bizitzarako edozein arlotarako balio du gero. Gure eskolatik pasa ostean txirrindulari profesional izatera iristen bada norbait, oso ona izango da hori, baina ez da gure helburua. Maite dugun kirol honen bitartez, pertsonak baloreetan heztea da gure lana".



Afizionatu mailako taldea ere izan zuen klubak: Cafes Aitona.

*"Taldera batu diren zuzendaritzako kide berriak ideia askorekin eta ilusio handiarekin datoz"*



## HISTORIA



Zikloturista talde batetik sortu zen Lagun Taldea.

Loraldia bizi zuen zikloturismoak 70ko hamarkadaren amaieran eta Elgoibarren ere sortu zuten zikloturista taldea 1978. urtean. Tomas Salegik akorduan dauka Gipuzkoako herri guztietan zeudela zikloturista probak sasoi hartan. "Elkartzen ginen denok eta Lodosok lagunduta joaten ginen, hura autoan eta gu bizikletan. Autoko maletategia janariz eta edariz beteta eramaten zuen. Gogoan dut ardandegi bat zuten lagun batzuek ardoz betetako furgoneta eramaten zutela. Beste herrietako zikloturistak ezagutu eta lagun berriak egitea zen irteera haien helburua. Ohitura hori ere galdu da". Gero, txirrindulari eskola sortu zuten eta jubenilen mailako lasterketa antolatzen hasi ziren. Duela 37 urte antolatu zuten estreinakoa. Nesken lasterketa eta kadeteena etorri ziren gero. Eli Gutierrezen izena aipatu du Salegik. "Joane Somarribaren kintakoa zela uste dut eta haren pare edo gainera ibiltzen zen. Italian Mundiala jokatzeko ari zela min hartu eta ez zuela gehiago gehiago korritu uste dut". Garai haietan afizionatu mailako taldeak ere izan zituen klubak, Cafes Aitona lehenik eta Ciclos Iturriaga gero.

## Uxue Alberdik Maialen Lujanbio elkarrizketatuko du martxoaren 1ean



**E**uskaratik eta euskaraz, herri hau sortzen izenburuko elkarrizketa antolatuko du Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak, Elgoibarko Udarekin lankidetzan eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntzarekin. Uxue Alberdik euskara gai hartuta egindako galderei erantzungo die Maialen Lujanbio bertsolariak. Martxoaren 1ean izango da saioa, Kultur Etxeko hitzaldi-gelan, 19:00etan hasita, eta BARRENEK zuzenean emango du streaming bidez [www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean.

## Eva Gutierrez eta Lorea Argarate izango dira Bilboko 'Farolin'

Eva Gutierrez eta Lorea Argarate -Las Tea Party DJ bikoia- aukeratu dituzte Bilbon *Farolin*, inauterietako pertsonaia ospetsua, izateko. *Farolin* esparru publiko edo profesionalean izena lortu duen bilbotarra da -ez du zertan Bilbon jaioa izan behar-, Bilboren izena ahotan erabili eta bilbotarra izatea azpimarratzen duen pertsonaia. *Zarambolas* du lagun Bilboko inauterietan, Bilboko jauntxo gibel-handi bat, eta aurten, Jon de Miguel Bilboko Plaza Nueva tabernako ostalariak beteko du paper hori.



## 'Aker larrea' izeneko kontzertua eskainiko du Sinuosek gaur

Sinuosek ez du hutsik egingo inauterietarako zitara. 1997an hasi ziren Patxi Zabaleta eta Iban Urizar inauterietan musika saio bereziak eskaintzen. Malape tabernan eskaini zuten kontzertua hasierako urteetan. Ondoren, Herriko Antzokia edota Toletxe taberna izan zituzten eszenatoki, eta azken urteotan Kultur Etxeko sotoan ematen dituzte musika saioak. Kontzertu desberdinak eta bereziak egiteko asmoz hasi ziren. Batzuk zaratsuak, beste batzuk goxoak, arraroak beste zenbait, baina beti ere, musikaz gozatzeko asmoz antolatutako saioak izan ohi dira. Aurten ere ez dute hutsik egingo. Aker larrea izenburupean irtengo dira oholtzara. Urtero kontzertu ezberdina eskaintzeko ahalegina egiten dute, eta berezia izango da gaurkoa ere. Gaur izango da kontzertua, 23:00etatik aurrera, Kultur Etxeko sotoan. Sarrera doan.



## 'Go!azen' antzezlanaren Mendarora dator martitzenean, hilaren 28an


ETBko telesail arrakastatsuari lotutako *Go!azen* antzezlanaren Mendaron ikusteko aukera izango da inauterietako martitzenean. Udaleku batean girotutako amodiozko istorioak kontatzen dituzte antzezlanaren, eta estreinatu zutenetik, izugarritzko arrakasta izan du obrak nerabe eta gaztetxoaren artean. Euskarazko produktu batek gazteen artean sekula izan duen arrakastarik handiena izan du *Go!azen* telesailak eta fenomeno horren harira asko izan dira agertzen dituen baloreekiko kritiko agertu direnak.

Saio bakarra eskainiko dute Mendaron, 18:30ean, ikastolako patioan. 700 lagunentzako lekua egongo da, eta sarrerak hilaren 20an jarri zituzten salgai, udaletxean (7 euro balio dute). Gaur, 9:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara erosi ahal izango dira sarrerak udaletxean.





## Futbolari elgoibartarren kromo bildumak arrakasta



**D**emaseko arrakasta izan du C.D. Elgoibarren kromo bildumaren lehen edizioak. Aurreko barixakuan jarri zituzten salgai herriko gozo-dendetan eta 1.500 kromo zorro saldu dituzte astebetean. Gehiago eskatu behar izan dituzte. C.D. Elgoibarrek futbolarietarako 372 album atera dituzte, eta beste 52 normalak. Personalizatutako bildumak jokalariei edo entrenatzaile baten kromoa du azalean inprimatuta. Bilduma normalak edonork eros ditzake dendan. "Badakigu umeei hasitako bilduma asko gurasoek bukatuko dituztela, baina hori ere polita da, seme-alabek falta dituzten kromo asko beste guraso batzuekin trukean lortuko dituztelako, eta horrelako harremanak ere sustatu nahi ditugulako. Horixe baita ekimen honen helburuetako bat, barruko harremanak estutzea eta elkartearen irudia herrian zabaltzea", azaldu du C.D. Elgoibarrek presidentea Antton Irazok.



## Brontzezko domina lortu dute Mintxetako alebinek

Adarraga Memorialaren 53. edizioa jokatu zuten Hernanin, aurreko domekan. Gipuzkoako Eskolarteko Atletismo Txapelketa ere bazen proba eta antxitxikari elgoibartarrek emaitza onak eskuratu zituzten. Alebinetako nesken proban Mintxeta Atletismo Taldeko hamar kide lehiatu ziren, eta hirugarren postua eskuratu zuten taldekako sailkapenean, tolosarren eta ordiziarren atzetik.

## Aste Santuko Kirol Campusean izena emateko epea martxoaren 1ean irekiko da

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak Aste Santuko Kirol Campusa antolatu du aurten ere, bederatzigarren urtez. Martxoaren 1etik 31ra bitartean eman ahal izango da izena Olaizaga kiroldegian. Apirilaren 10, 11, 12, 18, 19, 20 eta 21ean, zazpi egun horietan, 9:30etik 12:30era, kirol desberdinak egiteko aukera izango dute Kirol Campusean parte hartuko duten umeei. 2003. eta 2011. urte bitartean, biak barne, jaiotako haurrek parte hartu ahal izango dute Kirol Campusean.





# handia izan du



## Haundiren partida erabakigarria

Lesakako Beti Gazte taldearen aurka jokatuko du Haundik, zapatuan, Mintxetan (16:30). Saikapeneko beheko postuetatik aldentzeko partida erabakigarria dela-eta, zaleen babesa eskatu du C.D. Elgoibarrek, eta Mintxetara moztortuta igotzen diren umeek gozokiz betetako poltsa jasoko dute oparizat. Saikapeneko 12. postuan dago Haundi, 25 punturekin. Beti Gazte 14. postuan dago, 21 punturekin.

## Futbol Eskola, kalera

C.D. Elgoibarrek 100 urte beteko ditu martxoaren 3an, barixakua, eta egun horretarako Futbol Eskolako umeen arteko partidak antolatu dituzte Kalegoen Plazan, Plaza Txikian eta Lekuederreko kantxan, 18:00etatik aurrera. 2006. eta 2008. urte tartean jaiotako umeak izango dira herriko plazetan futbolearen arituko direnak.

## Emaitzak

### FUTBOLA

Amaiak Bat 1 – Haundi 0 (Oho. erreg.)  
 Bergara 2 – Elgoibar 0 (1. erreg.)  
 Mondragon 2 – Elgoibar 4 (Oho. jub.)  
 Elgoibar 3 – Aloña Mendi 3 (Jub. 1. maila.)  
 Elgoibar 1 – Lagun Onak 1 (Oho. kad.)  
 Vasconia A 1 – Elgoibar 3 (Inf. 1. maila)  
 Elgoibar 0 – Kostkas 7 (Infantil Txiki)  
 Urola 5 – Elgoibar 4 (Aleb.)  
 Eibartarrak A 0 – Elgoibar 6 (Aleb.)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 4 – Segorbe 5 (Nazional B)

### SASKIBALOA

Zast Zarautz 61 – Viento Sur Elgoibar 51

### ESKUBALOA

Alcorta F.G. 19 – Eibar 21 (Senior giz.)  
 Askartza 24 – Lauko 24 (Senior emak.)  
 Ordizia 31 – Salento 23 (Sen. giz.)  
 Beristain 28 – Ereintza 24 (Kub. mut.)  
 Tecnifuelle 20 – Zarautz 19 (Jub. neska.)  
 Urola 25 – Deca Elg. 32 (Jub. mut.)  
 Dario 30 – Bera Bera 31 (Kad. neska.)  
 Urnieta 22 – Cometel 29 (Kad. neska.)  
 Hernani 25 – Modeltek 18 (Inf. neska.)  
 Aiala 14 – Bacalaos Alkorta 12 (Inf. neska.)  
 Pneumax 16 – Aloña A 12 (Inf. neska.)  
 Pulpo 26 – Murgil 20 (Inf. mut.)

## Agenda

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 25  
 12:00 Elgoibar – Bergara (Ohorezko kad.)  
 16:30 Haundi – Beti Gazte (Oho. erreg.)

### ESKUBALOA (Olaizaga Kirolegian)

Zapatua, 25  
 16:45 Urkunde Elg. – Usurbil (Kad. mut.)

## Xoxotera egin zuten irteera mendizale gazteek

Xoxotera mendi irteera antolatu zuen Morkaiko mendi taldeak, ikastetxeekin elkarlanean, joan den otsailaren 19an. Lainoan egin zuten Aittolatik Xoxoterako bidea 40 ume eta beste horrenbeste gurasok, eta Xoxoteko aterpetxean indarrak berreskuratu ostean, bazkalordurako Elgoibarrera bueltatu ziren.



**LANA.....**  
**Eskaerak**

Garbiketa lanak egiteko prest nago. Baita interna moduan ere. Pertsona nagusiak ere zaintzen ditut.  
☎ 631 498 697

Garbiketa lanak egiteko prest nago, etxeetan eta portaletan. Euskaraz egiten dut.  
☎ 649 782 967

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan asteburuetan.  
☎ 651 156 456

Lanerako prest nago. Esperientzia handia daukat garbiketa lanetan eta nagusiak zaintzen.  
☎ 616 554 004 / 943 744 481

Asteburuetan lan egiteko prest nago. Orduka edo interna.  
☎ 631 212 497

11:00etatik 17:00etarako tartean lan egiteko prest nago.  
☎ 632 564 679

Garbiketa lanak egin eta nagusiak zaintzeko prest nago. Orduka.  
☎ 603 237 932

lan bila nabil.  
☎ 632 639 159

Adinekoak zaintzeko prest nago. Interna ere bai. Esperientzia handia daukat.  
☎ 612 216 458 / 602 193 095

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Interna ere bai.  
☎ 631 418 130

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka.  
☎ 600 319 516

Jatetxeetan platerak garbitzen lan egiteko prest nago. Esperientzia daukat.  
☎ 616 328 060

Adinekoak zainduko nituzke asteburuetan.  
☎ 631 562 461

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. Orduka.  
☎ 602 047 812

Adinekoak zainduko nituzke. Geriatria laguntzailea naiz. Ordu-tegi malgutasun handia.  
☎ 646 931 162

Garraioetan lan egiteko prest nago. Gidabaimena daukat.  
☎ 684 093 993

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.  
☎ 684 318 696

Adinekoak zainduko nituzke.  
☎ 635 005 536

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago.  
☎ 631 343 232

Etxeko lanak egin eta adinekoak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz.  
☎ 626 435 491

**GARAJEAK.....**  
Garaje itxia alokatzen dut Leku Ederren, 3. sotanoan. Ate automatikoa dauka.  
☎ 943 740 459 / 639 882 219

**ETXEBIZITZAK.....**  
**Alokairua**

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.  
☎ 631 212 497

Pisua edo logela bat hartuko nuke alokairuan.  
☎ 684 093 993

Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan.  
☎ 688 723 121

**BESTELAKOAK.....**  
Zarautz eta Elgoibar arteko joan-etorria auto berean egiteko pertsona baten bila nabil.  
☎ 653 497 999 (Susana)

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.  
Iragarkiarri erretratua jarritz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€ . Bestelakoak: 8€.  
Iragarkiarri erretratua jarritz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behe - Elgoibar**  
☎ 943 743 140 - [rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)

**NORFO SL**

**Jakin nahiko nuke zeintzuk neurri hartu behar diren eraikitzen ari diren etxebizitza bat erosteko orduan.**

Eraikitzen ari diren etxebizitza bat erosten denean, hiru dokumentu mota sinatu behar izaten dira: erres-kontratua, salerosketako kontratu pribatua eta salerosketaren eskritura publikoa. Baina sinatu aurretik, ezinbestekoa da hainbat egiaztapen egitea:

- Lursaila enpresa etxegilearena dela egiaztatu behar da Jabetza Erregistroan.
- Merkataritza Erregistroan, enpresa etxegilearen ahaldua -aipatutako dokumentuak izenpetzeko eskumendunaren egiaztatu behar da. Hori eginda, ikusi ahalko dugu enpresa etxegile hori zer moduz dabilen.
- Udaletxean egiaztatu beharko dugu enpresa etxegile horrek obra handietarako baimenik daukan ala ez.
- Eraikuntza finantzatu duen banketxean egiaztatu beharko dugu enpresa etxegileak finantza erakunde horrekin abalik izenpetu duen.

**AHOLKUA: Enpresa etxegileak abal-gutuna erakutsi beharko digu beti, eta agiri horretan eroslearen izen-deiturak, eta dirua aurreratutako baldin badu, zenbat aurreratutako duen jaso beharko da. Erres-kontratua sinatu zuenean erosleak jarri zuen diru-kopuruaz gain, kontratu pribatua sinatu zuenean jarritakoa eta eraikuntzak iraun bitartean egindako ordainketa guztiak ere jaso beharko dira.**

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**administradores**  
Centro Tecnológico de Estudios  
Jurídicos y de Asesoramiento  
Laboral y Social




Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Ene-ritz**, 7 urte egin dituzulako. Muxu handi bat denon partez.



Zorionak, **Ion**, bihar 5 urte bete teko dituzulako. Ondo pasa eta muxu asko fami- liako guztien par- tez.



Zorionak, **Hodei**, Gure txi- kitxoak 2 urte! Segi horrela, txapeldun! Muxu handi bat etxe- koen eta bereziki, Nahiaren partez.



Igandean 3 urte egingo dituzu, **Ekain**! Zorionak, potxolol Muxu handi bat familia guztia- ren partez.




Zorionak, **Gorka**, Heldu da otsailaren 21a! 8 urte potolo! Jarraitu horre- lako jator! Mila kilo muxu, arreba Noaren eta fami- liakoen partez.



Zorionak, **Mikel**, gaur 9 urte bete dituzu- lako. Ondo pasa, artista! Muxu bat etxe- koen eta bereziki, Alex eta Luciaren partez.



Zorionak familixako bi **poxpolin- txueri**, 10 eta 6 urte bete dituzte- lako. Horrenbeste belarri tirakada eta muxu denon partez.



Zorionak, **ma- itia**! Ondo pasa zure eguna, sor- presaz beteta. Muxu potolo bat etxekoen partez, bereziki, Mane- xen partez.



Zorionak, **bikoteli** Ondo pasa zuen ur- tebetetze egunetan! Patxo handi bana.



Erretratu bakarrek agurra: 4,50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

#### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3,50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

B. Sarasketa, 1 ac 943 12 82 31  
Kafea, opilak, ogia,  
pintxoak, ardoak...  
Gozatu **EIBARKO**  
**PREZIORIK ONENEKIN!**  
**KAFETEGIA OKINDEGIA**  
**SUTLINDO**  
LABADEROKUA Eguneroko 06.00etatik aurrera

**b** BARREN  
Jarri ezazu zure publizitatea  
BARREN astekarian edo  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean  
943 744 112  
Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

**Uzuri** ELGOIBAR - DEBA  
optika audio  
RPS 16812  
San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359 [www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)  
**ZURE OSASUN-IKUSMENA GARRANTZITSUA DELAKO**  
Eskatu ordua eta saihestu arazoak  
Kataraktak, Ikusmen nekatua, Begi lehoiak, Estetikoko zirkulazio arazoak, DMAE  
**Zure ikusmena zaintzen dugu**

## 25 ZAPATUA

**9:00** Hil bukaerako feria. Kalebarren plazan Elgoibarko baserrietako produktak jarriko dituzte salgai.

**11:00** Elgoibarko baserrietako produktuekin eginiko pintxoak salduko dituzte txosnan.

**12:00** Kale kantariak.

## 27 ASTELEHENA

**19:30** 'Epeletan' literatura tailerra. Danele Sarriugarterekin, Kirmen Uriberen *Elkarrekin esnatzeko ordua* liburua irakurriko dute. Udal Liburutegian.

## 28 MARTITZENA

**18:00** La edad de la inocencia liburua landuko dute Consuelo Carrererekin. Haizeak antolatuta, Udal Liburutegian.

## 1 EGUAZTENA

**9:00** Aurkezpena: Ingeniaritza Dualaren Programa Malgua. Enpresako barne promozioentzat. IMHn.

## 2 EGUENA

**9:00 eta 18:00** Aurkezpena: Ingeniaritza Dualaren Programa Malgua. Enpresan promozionatu nahi duten langileentzat. IMHn.

**19:30** Hitzaldia: *Ura, glaziarretatik lurrazpiko uretara*. Eñaut Izagirre eta Inma Mugertza elgoibartarek eskainiko dute hitzaldia. Morkaikok antolatuta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 3 BARIXAKUA

**21:30** Zine forum-a. Haizeak antolatuta, *Los limoneros* filma landuko dute, Loredi Salegarekin. Kafea hartuko dute lehenengo, eta filma 22:00etan hasiko da.



## INAUTERIAK 2017 Elgoibar

### 24 BARIXAKUA

**15:15** Ikastolak antolatuta, Euskal Inauteria. Kalejiran irtengo dira Ikastolatik Kalegoen plazara. (Euria bada, Ikastolan bertan egingo dute).

**16:30** Mozorro festa, Ludotekan. Merendola, mozorro lehiaketa eta dantzaldia.

**23:00** Sinuoserren inauterietako kontzertua. 'Aker larrea'. Kultur Etxeko so-tuan, doan.

### 25 ZAPATUA

**16:00** Inauterietako makillajea. Makillatzaile profesional bat egongo da Gaztelekuan.

**18:00** Atxutxikaraokea eta koreografiak. 2-12 urte bitarteko haurrentzako saioa, Maalako parkean.

**19:30** Mozorro eta karrozen desfilea, Mauxitxa txarangarekin eta erraldoi, buruhandi eta zezenzikletekin. Maalako parketik Kalegoen plazara.

**21:00** Mauxitxa txaranga eta koardilrentzako jolasak. Kalegoen plaza. (Euria bada, Maalako parkean).

**00:00** Erromeria, Laket taldearekin. Maalako parkean.

### 26 DOMEKA

**18:00** Dantzaldia, Eguren orkestrarekin. Jubilatuen Biltokian.

### 28 MARTITZENA

**16:45** Mozorroen elkartzea, Kalegoen plazan.

**17:00** *Kantu Kolore* haur berbena. *Jalgi hadi plazara!* Kalegoen plazan. Euria eginez gero, Maalako parkean.

**18:00** Eguren orkestrarekin dantzaldia eta mozorro lehiaketa, Jubilatuen Biltokian.

**18:15** Mauxitxa txarangaren kalejira. Erraldoi, buruhandi eta zezenzikletekin.

## INAUTERIAK 2017 Mendaro

### 24 BARIXAKUA

**15:00** Ikastolako jaialdia. Jarraian, txokolatzeko ogitartekoak banatuko dituzte. Arno Guraso Elkarteak antolatuta, Udala eta Ikastolarekin elkarlanean.

### 25 ZAPATUA

**12:30** Bizi Poza txarangarekin kalejira. **Goizean**, poteoa. Gaztetxeok antolatuta.

**15:00** Bazkaria, Gaztetxean, eta segidan, jokoak.

**17:30** Diskoteka eta txokolatada,

Goñati pilotalekuan.

**Ondoren**, familia jolas tradizionalak, haur eta helduentzako. Opariak egongo dira parte hartzen duten guztientzat. Musika giro alaiarekin. Arno Guraso Elkarteak antolatuta, Udala eta Ikastolarekin elkarlanean.

**19:30** DJ-a. Gaztetxean.

### 28 MARTITZENA

**18:30** *Go!azen* telesailaren antzez-lana. Ikastolako jolastokian. Sarrera: zazpi euro.

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

G U A R D I A K	<b>09:00 - 22:00</b>	<b>20:00 - 22:00</b>	- FERNANDEZ: Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) Tel.: 943 756 142
	24 Barixakua FERNANDEZ	* Guardia Elgoibartik kanpora denean, asteburuetan ezik: BARRENETXEA (Elgoibar) Errosario, 26 - Tel.: 943 741 277	- IBAÑEZ: Rekalde, 1 (Soraluze) Tel.: 943 751 638
	25 Zapatua YUDEGO		
	26 Domeka YUDEGO	<b>22:00 - 09:00</b>	- ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel.: 943 751 384
	27 Astelehena ORUESAGASTI*	MANDIOLA (Eibar) San Agustin, 3 - Tel.: 943 820 533	
	28 Martitzena BARRENETXEA		
	1 Eguaztena IBAÑEZ*		
	2 Eguena GARITAONANDIA		
3 Barixakua ETXEBERRIA*			

## Zinea (Herriko Antzokian)

## 'Toni Erdman'

24 astelehena: 21:30  
25 zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)  
26 domeka: 19:00  
27 astelehena: 21:30

## 'Ribbit'

26 domeka: 16:30

'Sunset song'  
(Ongarri zinekluba)

2 eguena: 21:30



I. URTEURRENA

## M<sup>a</sup> Dolores Iriondo Igartua

2016ko otsailaren 24an hil zen, 81 urte zituela.  
Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, otsailak 25,  
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.  
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



X. URTEURRENA

## Ramon Untzilla Aranberri

2007ko otsailaren 27an hil zen, 42 urte zituela.

***Kaixo, Ramon  
ta memorian zure irria  
ta memorian zure begiak  
ta memorian zure keinua  
ta memorian zure izatea  
ta memorian bizi zaitugu  
ta memorian zure aiduru  
ta memorian zaitugu katigu  
ta memorian zaitugu***

Etxekoak





Manu Sanchez

### Unai Villena



**G**arai hartan, loreak udaberrian bezala loratu ziren etxe-blokeak Elgoibarren, ingelesez *bloom* esaten zaion horren boom baliokidean. *Baby boom*aren garaia zen, eta industrializazioaren eskulan izatera etorritako espainiar emigranteen eta kalezulora jaitsitako

baserritarren etxebizitza-beharrak haranaren mugetatik tiraka, maparen ertz bihurriak destolestuz, uraz handik eta Karakaterantz zabaldu zen herria, eraikinak landatuz nonahi nahi beste. Adreiluzko enbor eta asfaltozko ibai formako zauriak jaio zitzaizkion ibarrari, urteen poderioz biziagotzen joango zen minez.

Arregitorre bazter batean, Erretsundi bestean, eta tartean A8 erreka madarikatua, ura isurian ordez autoak daramatzana tantaka etengabe, 1973ko ekainaren 23an inauguratu zenez gozotik, zurrusta geldiezinan. Ordutik igaro diren ia 44 urteotan,

joandako 15.940 egunetan, jakin nahi nuke ihes-hodietatik isurritako zenbat nitrogeno eta sufre oxido, bentzeno eta beste-lako hidrokarburo tona arnastu ote duten ondoan bizi diren elgoibartarrek, zenbat milioi partikula kutsakorrek egin ote duten haien arnasbideetan barrena ohartzeke.

Izango da nire burutazio babo bat, superstizio funsgabea, azalpenik gabeko fenomeno konplexuei arrazoibidea topatzeko saiakera etsia, baina nago asfaltozko errekek badutela zerikusi zuzenik beren inguruan eraikitako auzoetako minbizi-kasuen kopuruarekin. Aspaldi galdu nuen nik gurasoenean gaitza diagnostikatu zaienen kontua. Baina asko dira. Gehiegi, berrehun laguneko auzo txiki baterako. Estatistikak hotzegi eta errealitatea mingarriegi. Gudan beude joan direnak, eta elkartasunik beroena duintasunez beteta diagnostikoari buelta emateko borrokan bizi zaretenoi eta familiei. Sendakuntzaren udaberria iritsiko ahal zaitzue laster!

*“Nago asfaltozko errekek badutela zerikusi zuzenik beren inguruan eraikitako auzoetako minbizi-kasuen kopuruarekin”*



## 1985


100 urte beteko ditu martxoaren 3an C.D. Elgoibarrek, eta horren harira, hainbat eta hainbat ekintza antolatzen ari dira. Kluba beti izan da ezaguna herrian, eta kuadrilla askorentzat inauterietan mozorrotzeko aitzakia ere izan da. Argazki honetan Parrokiako katekistak ageri dira, C.D. Elgoibarko jokalarien eta sendagileen azalean.

**Zutik, kartelari eusten:** Ana Mari Birstain eta Jesusa Garate. **Erdiko ilaran:** Espe Unzilla, Elixabet Alberdi, Pilar Goi-koetxea, Amelia Martinez, Maria Luisa Gurrutxaga, Emiliana Asenjo, Gloria Muguerza eta Begoña Muguerza. **Behean, makurtuta:** Begoña Gorriti, Rosario Andonegi, Pilar Osoro, Manuela Artetxe eta Blanki Birstain.

*Aupa Elgoibar trakatra  
askotan zen entzun,  
herri osoa kantari  
eta zoriondun;  
aurten berriz zuekin  
gaituzue lagun  
denok oihukatzeko:  
"Elgoibar Txapeldun!"*

*Katekistek kolore  
txuri-gorrietan  
aurrez ospatu dugu  
Karnabal jaietan.  
Laguntza behar bada,  
futbol zelaietan,  
guk indarra badugu  
belaun-buruetan.*

*herri hau sortzen segi dezagun*  
**Euskaratik eta euskaraz**  
elkarrizketa



*"Espainiako telebista-kateko esatariak, kolorerik mudatu ere egin gabe, horrelaxe bota zuen: 'Eguberrietan edozer da posible, jaun-andreok; baita islandiar batek gabon kantak euskaraz kantatzea ere'. Askoz urrunago balego bezala euskara islandieratik, gaztelera islandieratik baino. Betikoa: elebakarrak uste du berea dela leku guztietara iristeko abiapuntu posible bakarra. Euskara urruti dago. Inkontziente kolektiboan euskara urruti dago. Meritua da haraino iristea. Meritua? Nonbait behar dugu abangoardia: euskara helmuga da ala abiapuntu?"*

**Martxoak 1, asteazkena**  
**19:00**  
**Kultur Etxeko hitzaldi-gela**

Antolatzaileak:



elgoibar  
hitzaileak

Laguntzailea:



Gipuzkoako Foru Aldundia